

Surfa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

SURFa

1. PROBAK.

Alebin, infantil eta kadete kategorietan banakako txapelketak jokatu dira. Banakako txapelketetan parte-hartzea librea izango da, ez da ikastetxe, klub edo talde bateko kide izan behar. Oro har, bakoitzak adinez dagokion proban parte hartuko du: **alebin, infantil edo kadete kategorian.**

Herri edo eskualde mailan probak antolatzeko, gutxienez lau surflarik eman behar dute izena.

2. MODALITATEAK

Alebin, infantil eta kadete kategorietan modalitate hau praktikatu da:

- Surfa

3. LEHIAKETA SISTEMA

Kanporaketa sistema piramidala erabiliko da. Txanda bakoitzetik lehiakideen erdiek egingo dute aurrera. (adibidez: 4 surflari badaude, 2 kanporatu eta 2 hurrengo kanporaketara sailkatuko dira)

3.1. SAILKAPENERAKO SISTEMAK

- Txapelketan gainditzen diren erronden arabera egingo da sailkapena:
 - Finalak: 1.a, 2.a, 3.a, 4.a
 - Finalerdiak: 5.a, 5.a, 7.a, 7.a,
 - Final-laurdenak: 9.a, 9.a, 9.a, 9.a, 13.a, 13.a, 13.a, 13.a
 - Final-zortzirenak: zortzi surflari 16. eta beste zortzi 24.
 - Final-hamaseirenak: hamasei surflari 3.º eta beste hamasei 48.
 -
- Txandetako berdinketak:
 - Txandako bi olatu onenen arteko batuketan berdinketa:
 - ✓ Olatu onenean puntuazio altuena daukana.
 - ✓ Bi olatuetan puntuazio berdina badute, hirugarren olatuan puntuazio onena duena. Eta berdinketak jarraitzen badu, laugarrena, bosgarrena, ... harik eta berdinketa apurtu arte.
- Txapelketan berdinketa:
 - Bi olatu onenak batu eta puntuazio altuena duena.

4. ARAUDIARI BURUZKO ALDERDIAK ETA ALDERDI TEKNIKOAK

4.1. - TXANDEN EZAUGARRIAK

- Lehiakideak*: 4-5 lehiakide, kolore desberdinetako likrekin
- Iraupena*: 15 - 20 minutu
- Olatu kopurua*: gehienez 10-15 olatu hartu ahal izango dira.
- Olatuen puntuaketa*:
 - Olatu guztiei zenbakizko puntuaketa bat emango zaie.
 - 2 nota altuenak batuta aterako da azken nota.

Surfa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

(adibidea: $8,5 + 4,2 = 12,7$ puntu)

e) *Protokoloa - Prozedura:*

- Aurreko txanda amaitzeko 5 minutu baino gutxiago geratu aurretik, norberari dagokion koloreko likra jaso.
- Aurreko txanda amaitu aurreko 5 minutuetan uretara sartu.
- Aurreko txandaren amaierako bi bozina hots motzak entzutean, olatuen apurketa gunean kokatu.
- Bozina hots luze bate bidez hasiko da txanda.
- Txandan zehar olatuak hartu, lehiakideekin lehia garbian.
- Bi bozina hots motzek adieraziko dute txandaren amaiera.

4.2. - ARAUDIA

a) *Txandaren aurretik:*

- Likrak jaso eta entregatzen diren gunean jantzi eta erantzi behar dira.
- Ezin da uretara sartu aurreko txanda amaitu baino 5 minutu lehenago, baldin eta antolatzaileek onartzen ez badute.
- Uretara sartzean, ezin zaie aurreko txandakoei traba egin, eta olatu apurketa gunetik kanpo egon behar da, aurreko txanda amaitu zain.

b) *Txanda jokatu bitartean:*

- Hasierako eta amaierako bozinen arteko olatuak bakarrik puntuatuko dira.
- Txanda hasieran, bozina jo aurretik partaide bat zutik jartzen bada taula gainean, olatu hori ez da puntuatuko.
- Txanda amaieran, olatua puntuagarria izan dadin, surlariak taula gainean zutik egon behar du eskuekin taula ukitu gabe, amaierako lehen bozina jo aurretik.

c) *Txanda amaitzean:*

- Txanda amaierako bi bozina hotsen ondoren, ezin da olaturik surfeatu.
- Olatua hartu eta etzanda atera behar da uretatik.
- Lehenbailehen joan behar da, likra jantzita, likrak banatzen eta jasotzen diren gunera, eta han erantziko da.

4.3. - PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

Epaileek irizpide tekniko hauek izango dituzte kontuan puntuaketak emateko garaian:

a) Olatuan egindako surf mugimendu edo maniobren arabera emango dira puntuak.

b) Puntuazioak bereizteko, kontuan hartuko dira honako hauek:

- Maniobraren zailtasuna
 - Olatuaren gunerik zailenean (olatua galtzeko arriskuarekin)
 - Maniobra zailak, erotzeko arriskuarekin.
- Maniobra bortitz eta indartsuak (abiadurarekin egindakoak)
- Maniobraren kontrol egokia
 - Olatuaren behealdetik goraino egindako maniobrak
- Maniobren lotura egokia.
- Maniobra desberdinak burutzea.
- Surfeatu: taularen ertz arteko surf garbia.

4.4. - ZIGORRAK

a) *Txapelketaren aurretik:*

- a. Epez kanpo izena ematea:
 - i. Baliteke ezin parte hartu ahal izatea
 - ii. Serieburu izaera galtzea

b) *Txandaren aurretik:*

Surfa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

- Likra berandu jasotzea (azken 5 minutuak baino beranduago):
 - Txandan parte hartzeko eskubidea galtzeko arriskua.
- Txanda hasi aurretik aurreko lehiakideei traba egitea:
 - Nahita: txapelketatik kanporatua.
 - Nahi gabe: **interferentzia (2. olatu onenaren puntuazioa erdira jaitsi).**
- c) *Txanda jokatu bitartean:*
 - Bi surflarien artean olatuan lehentasuna izango du:
 - Olatua barrurago hartu duenak.
 - Olatua lehenago hartu duenak.
 - Lehentasuna duen surflariari traba eginez gero, **interferentzia** izango da:
 - Traba egin duen surflariak interferentzia izango du: **2. olatu onenaren puntuazioari erdi kenduko zai.**
 - ✓ Arraun interferentzia: arraun egiteagatik olatua apurtu eta lehentasuna duenari traba egin.
 - ✓ Olatu interferentzia: taula gainean zutik jarri eta lehentasuna duenari traba egin.
 - ✓ Talka interferentzia: arraunean doan surflariak traba egitea olatuan datorrenari.
- d) *Txanda ondorengoak:*
 - Likra ez kentzea hartarako eremuan.
 - Diziiplina zigorra
 - Hurrengo txanda hasi eta txanda erdia baino lehen likra ez entregatzea.
 - Diziiplina zigorra
- e) *Txapelketaren amaiera:*
 - Sari banaketan ez agertzea, inolako justifikaziorik gabe.
 - Saririk-oparirik gabe geratuko da.